

IRUDI ANALOGIKO/DIGITALEKO TEKNIKARIA

LANPOSTUAREN ZEHAZTAPEN LABURRA

Argazki-irudiak, irudi bideografikoak, analogikoak eta digitalak lortu, prozesatu eta tratatzea. Sailak behar duen ikus-entzunezko dokumentazioa egitea, baita Saileko Unitateak prestatzeko eta haiei aholkua eta laguntza emateko jarduerak ere.

EGINKIZUNEN AZALPEN ZEHATZA

- Argazki-irudiak, kanpoko erreportajeak, erreprodukzioak eta abar hartzea Saileko Unitateetarako.
- Lortutako argazki-material guztia hautatu, berrikusi, artxibatu, muntatu eta banatzea.
- Adierazitako irudiak hartzeko ekipamendu guztia mantentzea eta berrikustea.
- Koloretako eta zuri-beltzezko film berezi jakin batzuk jasotzea eta eskuz prozesatzea.
- Negatiboa jaso eta errebelatzea, kopiak egitea paperean eta Saileko unitateek bidalitako argazki-materiala banatzea.
- Laborategiko kalitatea eta funtzionamendua kontrolatzeko testa egitea, programatzea eta mantentze-lanak egitea.
- Ekoizpen bideografikoetarako gidoi teknikoak egiten elkarlanean aritzea. Irudia eta soinua bideoetan hartzea.
- Mota guztietako euskarri analogikoen eta digitalen kopiak egitea.
- Hornitzaileen deiak eta bisitak ez ezik, Sailean argazkiari, soinuari eta bideoari buruz sortzen diren kontsulta teknikoei ere erantzutea.
- Ebidentziak aztertzea eta ebidentziei buruzko txosten teknikoak egitea. Errekerimendu judiziala dela medio, kontraanalisiak eta peritutzak egitea. Epaiketetara joatea peritu gisa.
- Irudiak digitalki prestatzea mapak, kartelak, krokisak eta abar egiteko formatu handian.
- Langileen etengabeko prestakuntza teknikoa ikastaroen, biltzarren, argitalpenen, Interneten eta abarren bitartez.
- Hainbat unitateri prestakuntza ematea, aholku ematea eta laguntzea teknika analogikoetan eta digitaletan, ikastaroak emanez eta kontsultei erantzunez.
- Laborategiko materialaren premiak ezartzea. Hornitzaileekin eta mantentze-lanetako zerbitzu teknikoekin harremanetan egotea.